

DEFINIZIOA Ezagutza, trebetasun eta JARRERA BERRIAK eskuratzea eta baitaratzea, eta ohiko bizitzan haietaz BALIATZEA.

EGOERA PRAKTIKOAK

Enplegua
bilatzea
norberaren kabuz
besteren kontura



AINTZANE, ikasketak amaitu eta Londrestik itzuli denean, lan bila hasi da. Orain arte ez du ezer lortu. Badaki ikaskide bat egoera berean egon dela, baina aurkitu duela azkenean lana. Harekin geratu da, zer ari den gaizki egiten, zergatik ez duen bilaketak emaitza positiborik ematen jakiteko eta ebaluatzeko. Lagunak esan dio, orientatzaile baten tutoretzapean, lan orientazio prozesu batean eman zuela izena, eta horrek lagundu ziola lana lortzen. Lagunak adierazitako ildo berari jarraitzea erabaki du; laguntza jasotzeko nora joan behar duen galdetu du, eta berak ere antzeko prozesuari ekin dio. Une oro, orientatzaileak finkatutako jarraibideei jarraituz eman dio hasiera prozesuari. Helburu profesionala argi duenez, duen prestakuntza egokia denez, eta enplegua non eta nola aurki dezakeen badakienez, hurrengo egitekoa curriculum on bat prestatzea izango da. Aintzanek horri buruz dauden eredu eta adibide desberdinen gaineko informazioa jaso du (Internet, esku-liburuak, orientatzaileak jarritako adibideak, ezagutzen dituen pertsonen prestatutako curriculumak... baliatuz), ondoren, zirriborroa taiutu, orientatzailearekin aztertu, aldaketak egin eta informaziorik nabarmenena modurik erakargarrienean biltzeko moduko curriculum diseinatu du.

Enplegua



MIKELEk 15 urte daramatza Gurutzetako pediatriako plantan, lanean. Ikuskatzailearen bitartez, lanpostu sortu berri baten jakitea izan du. Lanpostua eskuratzeko ikastaro trinko bat egin behar du, horrek gaituko baitu hura betetzeko. Aspaldidanik ez du prestakuntzarik jaso, eta ikasgelara itzultzeak nolabaiteko ziurtasunik eza sortzen dio. Hala ere, bideari ekin dio, bere ekintza eremua aberastuko dioten, eta bide batez, bere lanpostua sustatzen lagunduko dioten gauza berriak ikasteko. Horregatik doa egunero ikastarora. Bertan parte hartzen du, apunteak irakurtzen ditu, laburpenak egiten ditu, beste baliabide batzuk kontsultatzen ditu eta horrekin guztiarekin zerikusia duen informazioa bilatzen du. Ikastaroa bukatutakoan, egindako ahaleginak bere ezagutzak eguneratzen laguntzeaz gainera, ezagutzak aplikatzerakoan eta betetzerakoan lagundu diotela konturatu da.

Beste
alor batzuk



Metroa Barakaldora iritsi denetik, MARCOSEk lehen garraio gisa zerabilen autobusa utzi, eta metroa erabiltzea erabaki du. Hala ere, eta jakin, txartela makina igortzaileen bidez lortzen dela badakien arren, ez daki nola diharduten. Lehenengo egunean, bilobarekin joan da, hark erakutsi diezaion. Adi-adi entzun ditu jarraibideak, nahiz eta aldrebesak iruditzen zaizkion. Bigarren egunean, alabarekin joan da, eta haren jarraibideei jarraiki, txartela atera du. Hirugarren egunean, ikasitakoa burutzea erabaki du, eta horretarako laguntza eskatu dio segurtasuneko arduradunari. Laugarren egunean, saiakera zenbait egin ostean, lortu du helburua.

GOGOAN
IZAN

- ▶ Edozein une eta egoera dira IKASTEKO egokiak.
- ▶ Ohartu zaitez zein baliagarria den IRAUNKORKI ikasteko eta ikertzeko jarrera izatea.
- ▶ Gogoan izan EZAGUTZEK balioa eranstean diotela zure bizitzako alderdi desberdinei.



Fondo Social Europeo
Europako Giza Fonda

inguralde

BARAKALDOKO UDAL GORENA Euzko Lehen
Organismo Autonomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO